



# **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOPONIMIA- LANERAKO METODOLOGIA**

**Euskararen Aholku Batzordearen Toponimia  
Batzorde-atal Berezia**

**Vitoria-Gasteiz, 2020-02-06**

Dokumentu honek bi helburu ditu:

1. EAEko toponimia-lanari dagokionez, gaur egun dagoen egoeraren argazkia egitea.
2. Toponimia-alorrean dagoen eskumenen banaketa dela eta, eskumenak dituzten erakundeek lankidetzan, modu ordenatuan eta koordinatuan, lan egiteko metodologia bateratua eskaintzea.

OHARRA: Lan-metodologia honetan ez da kontuan hartu toki-entitateen izenak finkatzeko eta ofizialtzeko prozedura, legez finkatuta dagoelako.

## Sarrera

Nazio Batuen Bederatzigarren Konferentziaren IX/4 Ebazpenak, 2007ko abuztukoak, leku-izen geografikoei buruzkoak, adierazi zuen toponimoak direla Kultura Ondare Inmateriala eta, ondorioz, **toponimian eskumenak dituzten entitateek**, beste gauza batzuen artean, **babestu behar dutela ondare hori eta babesteko eta bultzatzeko programa egin behar dutela**.

Estatu mailan, maiatzaren 26ko 10/2015 Legeak, Kultura Ondare Inmateriala babesteari buruzkoak, 2. artikuluan, hauxe xedatu zuen:

«Tendrán la consideración de bienes del patrimonio cultural inmaterial los usos, representaciones, expresiones, conocimientos y técnicas que las comunidades, los grupos y en algunos casos los individuos, reconozcan como parte integrante de su patrimonio cultural, y en particular:

- a) Tradiciones y expresiones orales, incluidas las modalidades y particularidades lingüísticas como vehículo del patrimonio cultural inmaterial; así como la toponimia tradicional como instrumento para la concreción de la denominación geográfica de los territorios.»

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Lege Aholkularitzaren txostenak hauxe dio: ‘La Comunidad Autónoma del País Vasco es competente para regular los aspectos esenciales de la cooficialidad de las lenguas y, por tanto, también de la **toponimia oficial**, competencia esta que ejerció mediante la aprobación de **la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera**, cuyo artículo 10.1 dispone que la nomenclatura oficial de los territorios, municipios, entidades de población, accidentes geográficos, vías urbanas y, en general, **los topónimos de la Comunidad Autónoma Vasca, será establecida por el Gobierno, los Órganos Forales de los Territorios Históricos o las Corporaciones Locales en el ámbito de sus respectivas competencias**, respetando en todo caso la originalidad euskaldun, romance o castellana con la grafía académica propia de cada lengua. En caso de conflicto entre las Corporaciones Locales y el Gobierno Vasco sobre las nomenclaturas oficiales reseñadas en el párrafo anterior, el Gobierno Vasco resolverá, previa consulta a la Real Academia de la Lengua Vasca’. (Ikus I. ERANSKINA)

Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak (EHAA, 223 zk., V. kapitulua: 42., 43., 44., 45., 46., 47. eta 48. art.) Euskararen Legearen ostean etorritako legeriak utzitako hutsunea eta gabezia bete ditu neurri handi batean, eta horretan oinarrituta proposatzen da lan-metodologia hau.

Beharrezkotzat jotzen da eskumena duten erakundeen artean ahalegina egitea:

- EAEko toponimia behar bezala jasotzeko eta normalizatzeko,
- kartografian eta bide-seinaleetan txerta dadin prestatzeko,
- ofizialtzeko,
- EAEko Izendegi Geografiko Ofizialean integratzeko,
- EAEko erabiltzaile interesdun guztien eskura jartzeaz gain, ‘*Instituto Geográfico Nacional*’aren eskuetan uzteko *Nomenclátor Geográfico Nacional*-ean txerta dezan, eta,

- aurrerantzean, bi izendegi horiek eguneratuta egongo direla ziurtatzeko.

Dituen eskumenak kontuan, **Toponimia Batzordea** gune aproposa da dokumentu honetako **EAEko toponimia-lanerako lan-metodologia** eztabaidatzeko eta, ondorioz, adosteko eta onartzeko. (Ikus II. ERANSKINA).

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) ardura garrantzitsua izan du azken 30 urteotan, EAEko toponimiari dagokionez (IGNrekiko EAEko solaskide ofiziala da) eta uste du lehenbailehen finkatu eta onartu beharko litzatekeela lan-metodologia bat erakunde eskudunen artean koordinazioa bermatzeko eta denok **helburu bakarra** lortzeari begira jartzeko: **EAEko toponimia normalizatu ofizial bakarra egon dadila guztion eskura 'EAEko Izendegi Geografiko Ofizialean' eta hori bera egon dadila *Nomenclátor Geográfico Nacional*-ean integratuta, mundu globalizatuaren eskura.**

Azkenik, toponimiaren gaineko eskumenak banatuta badaude ere, jakina da udal guztiek ez dutela baliatuko eskumena diru-baliabiderik edo giza baliabiderik ez dutelako. Kasu horietan ere irtenbide bat ematera dator lan-metodologia hau.

## I. Aurrekariak eta eguneko egoera

### A. Toponimiaren gaineko eskumenei dagokienez, EAEn indarrean dagoen legeria.

(Ikus II. ERANSKINA):

### B. Gaurko egoera, toponimia-lana dela eta. Inplikatur dauden erakundeak.

#### B.1. Administrazio publikoak:

- **Eusko Jaurlaritza: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (toponimia) eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordetza (kartografia)**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS): toponimia-lana.

- EAE osoko toponimiako datu-basea (DB) kudeatzen du. Hainbeste urtetako bilketa-, berrikuste- eta normalizatzeko-lanen emaitza da DBa. Aspalditik ari da DBa zuzentzen, osatzen eta eguneratzen udalekin lankidetzan eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko ordezkari baten laguntzaz.
- EAEko Izendegi Geografikoa egina du Europako 'INSPIRE' direktibari jarraituta eta IGNrekin elkarlanean.
- EAEko udalak baino txikiagoak diren biztanle-entitateen izen ofizialen aldaketa bultzatzen du eta aldaketak burutzeko espedienteak egiten laguntzen du. Azken bi hamarkadetan, bereziki, Arabako kontzejuei lagundu die izenak ofizialtzeko espedienteak bideratzen.
- Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzaren diru-laguntzaz egindako EAEko udal-mapetarako toponimoak finkatzeko laguntza ematen die udaletako ordezkariak, Euskaltzaindiaren ordezkariarekin lankidetzan jardunez.
- Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde publikoei laguntzen die toponimiarekin zerikusia duten gaietan. Ura Agentziari eta EUSTATi, adibidez, inkoherentziak eta okerrak zuzentzen laguntzen die Euskaltzaindiarekin lankidetzan jardunez. Turismoa, Merkataritza eta Kontsumo Sailari eta Kultura Sailburuordetzako Ondare Zuzendaritzari ere eskainiko zaio laguntza bide seinalizazio kontuetan eta ondare kontuetan, hurrenez hurren.
- IGNrekiko lankidetzeta eta koordinazioa: EAEko toponimia helarazten dio IGNri *Nomenclátor Geográfico Nacional*-ean txerta dezan; IGNk gainbegiratzeko eskatzen dion informazioa gainbegiratu eta zuzentzen du; eta IGNko *Comisión Especializada de Nombres Geográficos* izeneko batzordearen bileretan parte hartzen du, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko kide batekin batera.
- Toponimiaren erabileraren jarraipena egiten du. Izen ofizialak erabiltzen ez dituzten erakunde eta enprekin harremanetan jartzen da informazio zuzena eskaintzeko (foru-aldunden bide-seinalizazioa, Lurraldebus, Posta eta Telegrafoak, Telefónica, Euskalmet, Google Maps, Geonames, udalen web orriak, EUSTAT, INE, kartografia-enpresak, Interneteko hainbat bilatzaile...).
- Eusko Jaurlaritzaren OpenData gunean EAEko Toponimia jartzen du nahi duenak har dezan: <http://opendata.euskadi.eus/katalogoa/-/geografikoak/euskal-autonomia-erkidegoko-toponimia-izen-ofizialak-eta-izen-arautuak/>

Lurralde Plangintzaren Sailburuordetza: EAEko kartografia.

- Eusko Jaurlaritzaren kartografia ofiziala argitaratzen du. Eskalak: 10.000tik aurrerakoak.
  - GeoEuskadi, Euskadiko Datu Espazialen Egitura (DEA), kudeatzen du <http://www.geo.euskadi.eus/s69-15375/eu>
  - Udal-mapak egiteko, urtero diru-laguntza deialdia kaleratzen eta kudeatzen du.
- **3 foru-aldundiak:**
- Kartografia-zerbitzuak dituzte. Eskala: 1:5.000. Aldundi bakoitzak bere informazio geografikoa aurkezteko eta hedatzeko modu propioak garatu ditu. Ikus webguneak.
  - Toponimia: EAEko hiru lurralde historikoetako toponimia biltzeko hasierako lanetan, 1986tik aurrera, parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren bidez. Geroago, inoiz, HPSk DB eguneratuagoa eskuratu zien aldundiei. Gaur egun, HPSn, ez dugu informaziorik aldundiek toponimia eguneratzen duten eta, hala bada, nola egiten duten lan hori.
- **Udalak:**
- Batzuek toponimia-ikerketak egiten eta argitaratzen dituzte.
  - Batzuek mapak egin dituzte eta egiten ari dira Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzak emandako diru-laguntza baliatuta. Mapa horiek egiteko, normalean, enpresak kontratatzen dituzte, eta oso kasu gutxitan egiten da ikerketa-lana; normalean, HPSri eskatzen diote dagokien udaleko toponimia eta toponimia horren oinarrian egiten dute lana mapa egiteko. Azken emaitza Lurralde Plangintzaren bitartez iristen zaio HPSri: aldatutako toponimoak (zuzenketak), ezabatutakoak (bajak) eta toponimo berriak (altak). Hori oso garrantzitsua da HPSrentzat EAEko Izendegi Geografiko Ofiziala eguneratuta mantentzeko. Baina, toponimoek informazio geografikoa (koordinatuak eta geometriak) behar dute eta, hori dela eta, azken urteotan, udalek Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzari, mapez gain, shape fitxategiak ere helarazi behar dizkiote.
  - Udal batzuk beren toponimia ofialtzeko asmoz, hasi dira HPSrengana jotzen galdetzeko zer egin behar duten eta zelako prozedura jarraitu behar duten. 179/2019 Dekretuak galdera horri erantzun dio.
- **Instituto Geográfico Nacional** (ikus eskumenak I. ERANSKINEAN), EAEko toponimiari dagokionean:
- HPSrekin lankidetzan eta koordinazioan aritzen da lanean, etengabe: EAEko Izendegi Geografikoa eskatu zion *Nomenclátor Geográfico Nacional*-ean txertatzeko. EAEko Izendegi Geografikoa IGnek Estatu osorako koordinaturiko metodologia eta irizpideen arabera dago eginda. Irizpideak INSPIRE Europako direktibak finkatutakoak dira.
  - Hainbat informazio bidaltzen dio HPSri hark gainbegiratu eta zuzen dezan.

- Euskararen Aholku Batzordearen Toponimia Batzorde-atal Bereziko kide da.
- *Comisión de Nombres Geográficos* batzordea koordinatu eta kudeatzen du. HPSko eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko kide banak parte hartzen dute batzordearen bileretan.

## B.2. Entitate aholku-emaileak.

### ▪ Euskaltzaindia:

- Hizkuntza-kontuetarako erakunde aholku-emaile ofiziala izanda, arauak eta irizpideak ematen ditu.
- Toponimoen gaineko azterketak egiten ditu eta irizpenak ematen ditu.
- HPSren, foru-aldundien eta udalen kontsultak erantzuten ditu.
- Euskal Corpus Onomastika (ECO) osatzen du.
- Iparraldeko eta Nafarroako toponimia-ikerketetan erabilitako irizpideak direla eta, hiru lurralde geografikoen arteko toponimia-koherentzia bermatzen du.

### ▪ Euskararen Aholku Batzordeko Toponimia-batzorde-atal berezia

176/2007 Dekretua (Ikus II. ERANSKINA)

Funtzioak (17.c artikulua):

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aholku ematea Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoak bildu, berreskuratu, zerrendatu eta gordetzeko beharrei eta lehentasunei buruz.
- Dena delako Administrazio eskudun batek eskatzen dionean, izen ofizialen normalizazioari buruzko aholkuak ematea.
- Mapetan, liburuetan, errotuluetan eta, oro har, hedabideetan, toponimoak erabiltzeko eta idazteko irizpideak eta arauak proposatzea.
- Eusko Jaurlaritzak toponimia arautzeko egiten dituen xedapen orokorreari buruzko txostena egitea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, toponimoen izen ofizialak aldatzeko edo egokitzeko eskatzen dituzten irizpenak ematea.

## B.3. Erakunde laguntzaileak:

Udalen artean toponimia-lanerako lan-metodologia zabaltzen lagun dezakete.

- EUDEL <http://www.eudel.eus/eu/eudel/presentacion>  
Udalei toponimia-lanak egiteko laguntza ematen die.
- UEMA <http://www.uema.eus/nor-gara/>

## II. Aurrerantzean toponimia-lana koordinatzeko eta bideratzeko lan-metodologia, azken dekretuaren arabera

**moldatua:** 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa (V. Kapituluak: 42., 43., 44., 45., 46., 47. eta 48. artikulua)

### A. Helburuak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofiziala eguneratuta mantentzea, hau da, etengabe zuzendu eta osatzea. Zergatik? *IGN Instituto Geográfico Nacional-aren Nomenclátor Geográfico Nacional*-ean txertatzen delako eta hori delako mundu osora zabaltzen dena. Hau nahitaez egin beharreko lana da, eskumenak EAEn daudelako.
- *IGNk* koordinatzen dituen Nazio Batuen Erakundearen (eta horren barruan UNESCO Hezkuntza, Zientzia eta Kulturako Erakundea) Aginduei erantzutea.
- INSPIRE direktiba dela eta, Europako Batzordearen eskariari erantzutea.
- EAEko izen ofizialak eta ez-ofizialak zabaltzea eta dagokion lekuan eragina izatea.

Ikusita, EAEn, toponimiaren gaineko eskumenak oso banatuta daudela, nahitaezkoak dira inplikaturik dauden erakundeen arteko lankidetzak eta koordinazioak. Izan ere, eskumenen banaketak izugarri zailtzen du EAEko toponimia-lana kudeatzea eta modu eraginkorrean bideratzea, aurretik aipatutako helburuak lortze aldera.

### B. 179/2019 DEKRETUAK finkatutako irizpide orokorrak.

- ✓ **“Udal-toponimiako printzipio gidariak eta bide publikoetako seinaleak (43. art.):** Hizkuntzari dagokionez, hauexek izango dira toki-entitateen izen ofiziala, izenon aldaketa eta udalerrien lurralde- eta eskumen-eremuko gainerako toponimoen eta izen geografikoen zehaztapena gidatzeko printzipioak:
  - a) Euskarazko edo gaztelaniazko jatorrizko izenak errespetatuko dira, hizkuntza bakoitzari dagokion grafia akademikoa erabilita. Toponimoen idatzizko eta ahozko tradizioak aintzat hartuko dira, belaunaldiz belaunaldi gorde diren forma linguistikoen jarraitutasuna bermatzeko. Izen ofizialei buruzko gatazkarik sortzen bada toki-entitateen eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Eusko Jaurlaritzak ebatziko du, Euskaltzaindiak irizpena eman eta gero.
  - b) Unibokotasun-printzipioa edo izen geografiko bakoitzaren «idatzizko forma bakarra» bermatuko da. Dena den, baliteke toponimo batzuek izendapen bikoitza edukitzea: izen bat hizkuntza batean eta beste izen bat beste hizkuntza batean.
  - c) Argitasun- eta zehaztasun-printzipioa bermatuko da, entitate geografikoen izendapenek bat ere zalantzarik sor ez dezaten.
  - d) Toponimoak ofizialtzeko prozesuan antolaketa gidariaren printzipioa bermatuko da, lurralde-eremu handiagoko administrazioen interesari eragiten zaienean; bai eta administrazio-koordinazioaren printzipioa ere”.



- C. Aurretik egin beharreko lana: toponimo lehenetsien gaineko erabakiak hartzeko irizpideak finkatu:** irizpide soziolinguistikoak eta kartografikoak, eta toponimoak hedatzeko bideak proposatzea.

Toponimia Batzorde-atal Bereziaren barruan 2 azpilantalde eratu dira irizpideok lantzeko eta Batzordeari aurkezteko onar ditzan. (Ikus III. ERANSKINA)

**D. Toponimo motak eta eskumenak.**

**179/2019 Dekretuak hau dio eskumenen gainean (42. art.):**

“1.– Udalei dagokie beren lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea eta, oro har, toponimoen eta leku geografikoen prozedura arautzea eta haiek onartzea, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2.– Toki-entitateen izena aldatzeko prozedura dagokion foru-araudiaren arabera izango da.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko toki-entitateek eta tokiko sektore publikoa osatzen duten entitateek, bai eta dekretu honen aplikazio eremu subjektiboko pertsona fisiko eta juridikoek ere, toponimo ofizialak behar bezala erabiltzen direla zainduko dute.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko toki-entitateek eta tokiko sektore publikoa osatzen duten entitateek, bai eta dekretu honen aplikazio eremu subjektiboko pertsona fisiko eta juridikoek ere, beren lurralde-eremuko toponimia aztertzeko, ikertzeko eta hedatzeko laguntza- eta sustapen-egitasmoak landuko dituzte”.

Bestalde, 46. artikuluan, “Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko toponimoak onartzea eta ofizialtzea” arautzen du Dekretuak.

Beraz, Dekretuak bi toponimo mota horiek arautzen ditu, hau da udalen lurralde- eta eskumen-eremukoak, batetik, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak. Beraz, ulertzen da toponimo mugakideak, hau da bi udalerrien artekoak eta bi lurralde historikoen artekoak, eta linealak eta poligonalak (ibaiak, errekek, mendilerroak), mugakideak direnean, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak direla.

Bestalde, 44.5 artikuluan hauxe ezartzen du: “Leku geografiko bat Euskal Autonomia Erkidegoari eta beste autonomia-erkidego bati eragiten dien eremuan dagoenean, Euskal Autonomia Erkidegoak izen ofizialtzat hartutako izenari eutsiko dio. Eragindako autonomia-erkidego horrekiko lankidetzat bultzatuko du Eusko Jaurlaritzak, izendapen bikoitzak erabiltzeko akordioak bilatzea helburu”. Dekretuan zehazten ez bada ere, kasu horretan, gatazka sortuko balitz, IGNko Zuzendaritza Nagusiak erabakiko luke, 1545/2007 Errege Dekretuaren arabera.

**E. Toponimoak finkatzeko lan-metodologia. Oinarrian dago Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza koordinazio-lana egitea<sup>1</sup> (179/2019 Dekretua: Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen saila).**

Hiru egoera gerta daitezke:

1. Udal batek toponimia-ikerketak bat edo udal-mapa egiteko asmoa du eta lanaren emaitza EAEko Izendegi Geografiko Ofizialean txertatzea nahi du.
2. Udal batek toponimia-ikerketak bat edo udal-mapa egin du eta EAEko Izendegi Geografiko Ofizialean txertatzea nahi du.
3. Udalak ez egitea ez toponimia-ikerketarik ez eta udal-maparik ere, diru-baliabiderik edo giza baliabiderik ez izateagatik.

**1. Udal batek toponimia-ikerketak bat edo udal-mapa egiteko asmoa du** eta lanaren emaitza EAEko Izendegi Geografiko Ofizialean txertatzea nahi du.

Urratsak:

- a. Udala HPSrekin jarriko da harremanetan asmoaren berri emateko eta HPSren DBan dagoen udal horretako toponimia eskuratzeko eskaria egingo du.
- b. HPSk espedientea zabalduko du eta DBan dagoen informazioa, linguistikoa nahiz geografikoa (Excel formatuan), eta lana egiteko behar diren jarraibideak helaraziko dizkio udalari. HPSk, behar izanez gero, udalari zalantzak argitzen lagunduko dio lanaren hasieran zein lana egiten den bitartean.
- c. Udalak aztertu eta, ondorioz, zuzendu (bajak eta zuzenketak) eta osatuko (altak) du HPSk emandakoa, betiere, udal horretako toponimia EAEko Izendegi Geografiko ofizialean txertatzeko behar den informazioa kontuan izanda. HPSk Excel dokumentuan zehaztuko du beharrezkoa\* edo aukerakoa den informazioa:

- Udallerriaren izena\*
- Toponimo lehenetsia\*
- Ofiziala den ala ez\* (ofizializazioaren ziurtagiria bidali behar da)
- Toponimoaren aldaerak (aukerakoa)
- Entitate geografikoa (taula baten arabera)\*
- Geometria

<sup>1</sup> **82/2017 DEKRETUA**, apirilaren 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena:

• **13. art. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.**

2.g) Hizkuntza-politikan eskumena duten botere publikoak elkarlanean aritzeko neurriak dinamizatu eta bultzatzea, horretarako behar diren ekimen guztiak sustatuta eta erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa areagotzen duen beste edozein formula ikertuta.

2.h) Azaroaren 24ko 10/1982 Legea (Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa) eta gainerako xedapen osagarriak egoki garatzen eta aplikatzen direla zaintzea, hargatik eragotzi gabe Administrazioeko beste organo batzuek horretarako espezifikoki dituzten egitekoak. Esleitutako jardun-eremuan, euskararen erabilera normalizatzeko xedez, arreta berezia jarriko du botere publikoek xedapen orokorrak bete ditzaten, baita Eusko Jaurlaritzaren jarraibideak eta Euskararen Aholku Batzordearen gomendioak ere, eta betetze-maila ebaluatuko du.

• **15.art. Euskara Sustatzeko Zuzendaritza.**

2.d) Bide-seinaleetan eta hizkuntza-paisaian, oro har, toponimia normalizatzea baldin eta Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Berriazko Batzordeari ez badagokio.

- HPSren DBarekiko izandako aldaketak (altak, bajak, zuzenketak), HPSk emandako kodeak erabiliz.
- d. Udalak lantze-prozesuan izan ditzakeen zalantzak Euskaltzaindiarekin eta HPSrekin landuko ditu. HPSk, beraz, Akademiaren laguntza izango du. Toponimia ikerketak eta udal mapak egiteko proiektuetan, Euskaltzaindia erakunde aholku-emailea izango da, orain arte moduan, lan horietako toponimoen hizkuntza-kalitatea bermatzeko.
- e. Ikerketa-lana egin bada, maparik gabe, behin lana amaituta, udalak HPSri helaraziko dio eta HPSk gainbegiratuko du eta egiaztatuko du ea EAEko Izendegi Geografiko Ofizialean txertatzeko beharrezko informazioa behar bezala jasota dagoen, bai eta Euskaltzaindiaren hizkuntza-irizpideak nahiz Toponimia Batzordearen irizpide soziolinguistikoak eta kartografikoak ere ondo aplikatu diren. Lurralde Plangintzaren diru-laguntzari esker mapa egiten bada, hari emango dio udalak lanaren emaitza eta Lurralde Plangintzak eskuratuko dio HPSri.
- f. HPSk berrikustearen emaitza jakinaraziko dio udalari. Argitu beharrekorik balego, HPSk udalari bilera eskatuko lioke. Bilera horretan HPSk Euskaltzaindiaren laguntza izango luke. Adostasunera iristeko arazorik izanez gero, Eusko Jaurlaritzak erabakiko du Euskaltzaindiarekin kontsultatu ondoren (Euskararen Legea; 179/2019 Dekretua).
- g. Behin erabakiak hartuta, HPSk udalak emandakoa EAEko Izendegi Geografiko Ofizialean txertatuko du.
- h. Udalak toponimia hori ofizialtzeko urratsa eman nahi badu, 179/2019 Dekretuaren 46. artikuluan ezarritako prozedura jarri beharko du martxan.

OHARRA: metodologia hau lan mota guztietarako erabili beharko da: ikerketa-lan sakona egitea bada kontua, mapa bat egitea, zuzenketa edo aldaketa puntualen bat egitea, edo toponimo berri bati alta ematea bada...

## **2. Udal batek toponimia-ikerketa bat edo udal-mapa egin du eta EAEko Izendegi Geografikoan txertatzea nahi du.**

Aurreko puntuko urratsak berdin-berdin jarraitu beharko dira. Izan ere, udalaren ardura izango da bere toponimia EAEko Izendegi Geografiko Ofizialean txertatzeko moduan egokitzea eta prestatzea.

## **3. Udalak ez egitea ez toponimia-ikerketarik ez eta udal-maparik ere, diru-baliabiderik edo giza baliabiderik ez izateagatik.**

Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren EAEko Izendegi Geografiko Ofizialean dauden udal horretako toponimoak dauden-daudenean geratuko dira behin-behinekoz. Berrikustelaneen baten ondorioz, HPSk zuzenketak edo aldaketak proposa ditzake toponimia horretan EAEko Izendegi Geografiko Ofizialaren koherentzia eta oreka mantentzeko. Betiere, dagokion udalaren adostasuna eta onespena bilatuko ditu HPSk eta hizkuntza-gaietan Akademiari egingo dio kontsulta.

### III. Toponimoak ofizialtzea

Biztanle-entitateen (udalerriak eta udalerriak baino txikiagoak diren biztanle-entitateak) izenak ofizialtzeko bideak aspalditik daude finkatuta. 179/2019 Dekretuak (45. art.) berretsi du: “1.- Foru-araudian jasotakoaren arabera arautuko da toki-entitateen izena aldatzeko prozedura. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzak, tokiko administrazioaren arloko eskumena duen sailak proposatuta, udalei proposatu ahal izango die izena zuzentzeko, baldin eta, irizpide akademikoen arabera, hizkuntza-akatsak badaude edo toponimoaren idatzizko eta ahozko tradizioekin bat ez badator”.

Biztanle-entitateen izenak ofizialak dira ‘*Registro de Entidades Locales*’-en txertatzen direnean eta udalerrien izenak, berriz, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero. (Ikus I. ERANSKINA).

**Gainerako toponimoen kasuan** hauxe izango da prozedura, 179/2019 Dekretuak ezarritakoa:

✓ **Toponimoak ezartzerakoan nahi eta nahi ez bete beharreko arauak** (44. art.):

1.– Izen geografiko ofizial baten ortografia-zuzenketa soila, berekin ekartzen ez badu izenaren forma aldatu beharra, ez da hartuko toponimo ofizialaren aldaketatzat; hortaz, prozedura laburtuaren mende egongo da. Ortografia-zuzenketa soiltzat hartuko da toponimoari dagokion hizkuntzaren grafia akademikora egokitzea, aipatutako egokitzapenak toponimoaren ahoskerari eragiten dioten kasuak barne hartuta.

2.– Osagai generikoaren itzulpena ere ez da hartuko toponimoaren aldaketatzat, baina, edonola ere, Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak errespetatu beharko ditu.

3.– Toponimoen forma linguistikoaren eta zeinu grafikoaren ezarpena (marratxoa, barra zeharra eta bestelakoak) Euskaltzaindiak emandako arau eta irizpideetara egokituko da.

4.– Leku geografiko batek bi izen –bata, euskaraz, eta bestea, gaztelaniaz– baldin baditu, hauxe bete beharko da:

- a) Izendapena testu baten barruan ez badago, biak idatziko dira, barra batez berezita. Barraren alde bietan zuriune bat utziko da; eta euskarazko izena aipatutako barraren ezkerrean idatziko da.
- b) Komunikazioa euskarazko testu baten bidez egiten denean, hizkuntza horri dagokion izena baino ez da erabili beharko.
- c) Komunikazioa gaztelaniazko testu baten bidez egiten denean, izen biak erabiliko dira, apartatu honetako a) letran adierazi bezala.

5.– Leku geografiko bat Euskal Autonomia Erkidegoari eta beste autonomia-erkidego bati eragiten dien eremuan dagoenean, Euskal Autonomia Erkidegoak izen ofizialtzat hartutako izenari eutsiko dio. Eragindako autonomia-erkidego horrekiko lankidetzat bultzatuko du Eusko Jaurlaritzak, izendapen bikoitzak erabiltzeko akordioak bilatzea helburu. (*Gatazka sortuz gero, IGNko Zuzendaritza Nagusiak erabakiko du, 1545/2007 Errege Dekretuaren arabera*). Leku geografiko bat Euskal Autonomia Erkidegoko bi udalerrri edo bi lurralde historiko edo gehiagoren eremuan badago, izen bera eta bakarra erabiliko da.

6.– Lehentasuna emango zaio genero-ikuspegiari.

7.– Toponimoen osagai espezifikoak ez dira beste hizkuntza ofizialera itzuliko, salbu eta jatorrizko izena berreskuratzeko bada eta dokumentazio historikoan forma hori jasota badago. Toponimoari, azalpen moduan, generiko estandarra eranstean bazaio haren izaera geografikoa zehazteko, lehentasuna emango zaio generiko horren euskarazko bertsioari, hargatik eragotzi gabe beste hizkuntza ofizialera ere itzuli ahal izatea.

8.– Leku geografiko zehatzen izen berriak ofizialdu behar direnean, honako arau hauek beteko dira:

- a) Lehentasuna emango zaie euskarazko izenei, gaztelaniazko izenen aldean.
- b) Aztertuko da dagokion lekuan bertan edo inguruan izena zehazteko erabil daitekeen toponimorik badagoen, eta hala bada, beste irizpide erabilgarri batzuei baino lehentasun handiagoa emango zaie toponimo horiei.
- c) Toponimo berri horiek pertsona-izenik badute, lehentasuna emango zaie emakumezkoen izenei.
- d) Administrazio eskudunak Euskaltzaindiaren irizpena jaso ondoren egingo du bere proposamena.
- e) Artifizio handiko izenak, izen exotikoak edo merkataritzari lotutakoak baztertuko dira, eta atzerriko hizkuntzetan daudenak ere bai”.

✓ “**Prozeduraren oinarrizko arauak** (45. art.):

2.-Oinarrizko arau hauek bete beharko dituzte beren lurralde- eta eskumen-eremuko **izen ofizialak onartzeko** udalek ezartzen dituzten prozedurek:

- a) Prozedurari hasiera emateko, dagokion organoaren aldeko erabakia beharko da.
- b) Espedientea jendaurrean jartzeko epea ez da 30 egunekoa baino txikiagoa izango, eta dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean jarriko dira iragarkiak.
- c) Euskaltzaindiaren irizpena beharko da.
- d) Dagokion udal-organoaren behin betiko onarpena beharko da.

3.– Behin udalak toponimoa edo leku geografikoa onartuz gero, udal idazkaritzak espediente osoaren kopia autentikatua bidaliko dio hizkuntza-normalizazioaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

4.– Espedienteari sarrera eman eta handik hiru hileko epean, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren eskumena duen sailak aurka egin ahal izango du, honako alderdi hauei dagokienez:

- a) Funtzari dagokionez, udal-erabakia ez badator bat tokiko toponimiarekin, edo dekretu honetako 43. eta 44. artikuluetan jasotako printzipio eta arauak betetzen ez baditu.
- b) Prozedurari dagokionez, dekretu honetako 45.2 artikuluan adierazitako alderdi organiko eta izapideei buruzkoak betetzen ez badira.

Hiru hileko epe horretan ez ba zaio onarturiko izenari aurka egiten, izena Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean inskribatu dadin aginduko du Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren eskumena duen sailak.

5.– Izen ofizialen arteko desadostasunik egonez gero, Gobernu Kontseiluak ebazpen bidez hartuko du azken erabakia, artikuluko 2. apartatuko c) letran adierazten den Euskaltzaindiaren irizpena kontuan hartu ondoren.

6.– Toponimo edo leku geografikoaren izena Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean inskribatzen denetik aurrera ofiziala izango da.

7.– Behin izen ofiziala Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean inskribatu eta gero, hizkuntza-normalizazioaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak horren jakitun ipiniko du Estatuko Administrazioa, Estatuko izendegi geografikoan ere inskriba dezan, bai eta nazioarteko erregistroetan eta instantzietan ere.

8.– Dekretu honetako 44. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan jasotako kasuetan, prozedura sinplifikatuari jarraituko zaio. Prozedura horretan, bada, izapide hauek egin beharko dira: hasierako onarpena, informazioa jendaurrean jartzea, behin betiko onarpena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean inskribatzea”.

✓ **“Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko toponimoak onartzea eta ofizialtzea (46. art.):**

Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko toponimoak onartzeko eta ofizialtzeko, honako izapide hauek egin beharko dira:

a) Proposamen idatzia eta arrazoitua egin ondoren, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailak bere eskumeneko toponimoak ezabatzeko, zuzentzeko, onartzeko edo ofizialtzeko prozedurari ekingo dio, ofizioz edo alderdi batek eskatuta.

b) Eragindako udalei entzunaldia emango zaie, proposamenari buruzko adierazpenak egin ditzaten (proposamenarekin batera, espedientean dauden aurrekari eta dokumentu guztiak ere aurkeztuko dira). Entzunaldia eta jendaurreko informazio-epea 30 egunekoa izango da. Iragarkiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ukitutako lurralde historikoetako aldizkari ofizialetan argitaratuko dira.

c) Informazioa jendaurrean jarri osteko emaitza jasotakoan, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailak Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Batzorde Atal Bereziari eskatu ahalko dio irizpena, baina irizpena ez da loteslea izango. Batzordeak bi hilabeteko epea edukiko du irizpena emateko, eskaera egiten denetik zenbatzen hasita. Epe hori iraungita, aurrera jarraituko du prozedurak.

d) Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailak espedientearen kopia autentikatua bidaliko dio Euskaltzaindiari, akademiak ofizialdu nahi diren toponimoen hizkuntza-zuzentasunaz irizpena eman dezan. Irizpen hori nahitaezkoa da, baina ez loteslea, eta Euskaltzaindiak bi hilabeteko epea izango du egiteko, eskatzen zaionetik zenbatzen hasita. Epe hori iraungita, aurrera jarraituko du prozedurak.

e) Behin espedientea amaituta, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen saileko buruak ebazpena emango du, eta toponimoa ofizialtzat joko da. Hala, ebazpenean aginduko du toponimoa Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean inskribatzeko eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokien lurralde historikoetako aldizkarietan informazioa argitaratzeko. Halaber, Estatuko Administrazioari era formalean jakinaraziko dio, toponimoa Estatuko Izendegi Geografikoan eta nazioarteko erregistroetan eta instantzietan sar dadin”.

✓ **“Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofiziala. (47. art.)**

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofiziala eratzten da. Erregistro publikoa da, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailera adskribatua, eta han inskribatuko dira Euskadiko toponimo ofizialak.

2.– Arau honetan ezarritako prozedurei jarraikiz ofizialtzen diren toponimoak eta dagokion foru-araudia aplikatuta ofizialtzen direnak sartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean txertatzen diren idatzohar eta idazpenek datu hauek, gutxienez, jaso beharko dituzte:

- a) Idazpenaren zenbakia, kodea eta identifikazioa.
- b) Toponimo ofizialaren izena. Bi forma izango ditu: forma labur bat, zeina osagai generikorik gabeko izen berezi bat izango baita –salbu eta generiko hori izen bereziaren parte den kasuetan–, eta, horrez gain, forma hedatu bat, izen berezia eta hari dagokion generikoa bilduko dituen, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.
- c) Toponimoaren alonimoak.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoaren 1:5.000 eskalako kartografia edo ortoargazki ofizialean eta erreferentziako sistema geodesiko ofizialean udalerria eta kokapen geografikoa zehaztuko dira, dagokion entitate geografikoa hobekien erakusten duen georeferentziazio poligonalaren, linealaren edo puntualaren bitartez.
- e) Toponimoa noiz ofizialdu zen eta dagokion aldizkari ofizialean noiz argitaratu zen jakiteko eguna eta erreferentzia zehatzak.
- f) Toponimoak izendatzen duen lekua udal-mugarte, lurralde historiko edo autonomia-erkidego batean baino gehiagotan badago, hori beren-beregi adieraziko da, eta zein diren zehaztuko da. Gainera, gorabehera hori dela-eta toponimoak dituen izendapen guztiak jaso beharko dira.
- g) Ofizialtze-espeditentearen signatura, eta haren artxiboaren kokapen zehatza.

## IV. Ondorioak

Dokumentu honetan, EAEko toponimia-arloan dagoen eskumen-banaketa dela eta, lanak kordinatzeko lan-metodologia bat eskaintzen da, jakinda EAEko Izendegi Geografiko Ofiziala denon artean osatu eta eguneratu behar dugula.

30 urte baino gehiago joan dira Euskararen Legea indarrean sartu zenetik eta HPSn, beti, kontziente izan gara irtenbide bat bilatu behar zela egoera konplikatuen (kudeaketa) aurrean.

Hain zuzen, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea garatzen duen 179/2019 Dekretuak arazoa konpondu du hein handi batean. Hala ere, Dekretuak ezarritakoa ondo betetze aldera, batetik, eta, bestetik, Dekretuak ezarri ez duena baina nahitaez kudeatu behar dena, bideratze aldera, behar-beharrezkoa da adostutako lan-metodologia erabiltzea.

Praktikara eramateak esango digu zelako zailtasunak eta eragozpenak agertuko diren. Bide emankorra izango delakoan gaude.



## ERANSKINAK

- I. ERANSKINA: Toponimiaren gaineko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoan.
- II. ERANSKINA: Toponimia Batzorde-atal Bereziaren egitekoak: 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa: art. 14, 15, 16 eta 17.
- III. ERANSKINA: Toponimia Batzordearen azpilantaldeek landutako irizpide soziolinguistikoak eta kartografikoak.



## I. ERANSKINA. TOPONIMIAREN GAINEKO ESKUMENAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Lege-Aholkularitzak egindako txostena taula batera ekarrita

ERAKUNDEA	LEGEAK, DEKRETUAK	FORU-ARAU
<p>Oinarrizko legeria eta legeria orokorra</p>	<p><u>El Estatuto de Autonomía del País Vasco</u>: aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, dispone en su artículo 6 que el euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas. Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, continúa diciendo el apartado 2 del referido artículo 6, teniendo en cuenta la diversidad socio-lingüística del País Vasco, garantizarán el uso de ambas lenguas, regulando su carácter oficial, y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento.</p> <p>La doctrina constitucional sobre la materia de cooficialidad lingüística permite señalar que, superando unos primeros estadios titubeantes en torno a la existencia de una atribución competencial específica sobre la base de los preceptos citados, se ha acabado por afirmar (por todas, STC 87/1997, analizando el equivalente artículo 3 del anterior Estatuto de Autonomía de Cataluña) el mandato y la habilitación competencial de las Comunidades Autónomas con lengua propia para desarrollar actividades de fomento de la lengua cooficial, así como para regular los aspectos esenciales de la cooficialidad de las mismas.</p>	

	<p><b>El artículo 10 del Estatuto de Gernika</b> reconoce a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de demarcaciones territoriales municipales, sin perjuicio de las facultades correspondientes a los Territorios Históricos, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37 del propio Estatuto (apartado 1); Régimen Local y Estatuto de los Funcionarios del País Vasco y de su Administración Local, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 149.1.18. de <b>la Constitución</b> (apartado 4); normas procesales y de procedimientos administrativos y económico-administrativo que se deriven de las especialidades del derecho sustantivo y de la organización propia del País Vasco (apartado 6); Cultura sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.2 de la Constitución (apartado 17); Patrimonio histórico, artístico, monumental, arqueológico y científico (apartado 19).</p> <p>Por lo demás, el Estatuto de Autonomía de Gernika reconoce los Regímenes Forales específicos y privativos de los Territorios Históricos que integran el País Vasco, habilitándoles para conservar o, en su caso, restablecer y actualizar sus instituciones de autogobierno. Así, el artículo 37 establece, en su apartado 3, que en todo caso tendrán competencias exclusivas dentro de sus respectivos territorios, entre otras, en materia de demarcaciones territoriales de ámbito supramunicipal que no excedan los límites provinciales, todas aquéllas que se especifiquen en el propio Estatuto o que les sean transferidas, así como el desarrollo normativo y la ejecución, dentro de su territorio, en las materias que el Parlamento Vasco señale.</p> <p>La delimitación de competencias entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, en su titularidad y ejercicio, se regula en <b>la Ley 27/1983, de 25 de</b></p>	
--	--	--

	<p><b><u>noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos</u></b> (en lo sucesivo <b><u>Ley de Territorios Históricos</u></b>). De acuerdo con su artículo 6, es de la competencia de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma la legislación y la ejecución en todas aquellas materias que, correspondiendo a la Comunidad Autónoma según el Estatuto de Autonomía, no se reconozcan o atribuyan en dicho Estatuto, en la Ley 27/1983 u otras posteriores, a los Órganos Forales de los Territorios Históricos. En todo caso, la facultad de dictar normas con rango de Ley corresponde en exclusiva al Parlamento. El artículo 7 define las competencias que corresponden a los Órganos Forales de los Territorios Históricos, entre las que destaca la competencia exclusiva en materia de demarcaciones municipales y supramunicipales, que no excedan de los términos del Territorio Histórico; mientras que en el artículo 8 se relacionan las potestades que les corresponden en las competencias definidas en el artículo 7. Por último, el artículo 12 señala que la Comunidad Autónoma, mediante Ley de su Parlamento y en los términos que la misma establezca, podrá transferir o delegar a los Órganos Forales de los Territorios Históricos competencias no atribuidas a los mismos por la Ley de Territorios Históricos.</p> <p>Por otra parte, la Ley de Territorios Históricos, en su artículo 3 reconoce y garantiza la autonomía de los Municipios para la gestión y la administración de sus recursos.</p> <p>De todo lo antedicho, es posible colegir que la Comunidad Autónoma del País Vasco es competente para regular los aspectos esenciales de la cooficialidad de las lenguas y, por tanto, también de la <b><u>toponimia oficial</u></b>, competencia esta que ejerció mediante la aprobación de <b><u>la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera</u></b>, cuyo</p>	
--	--	--

	<p>artículo 10.1 dispone que la nomenclatura oficial de los territorios, municipios, entidades de población, accidentes geográficos, vías urbanas y, en general, <b>los topónimos de la Comunidad Autónoma Vasca, será establecida por el Gobierno, los Órganos Forales de los Territorios Históricos o las Corporaciones Locales en el ámbito de sus respectivas competencias</b>, respetando en todo caso la originalidad euskaldun, romance o castellana con la grafía académica propia de cada lengua.</p> <p>En caso de conflicto entre las Corporaciones Locales y el Gobierno Vasco sobre las nomenclaturas oficiales reseñadas en el párrafo anterior, el Gobierno Vasco resolverá, previa consulta a la Real Academia de la Lengua Vasca.</p>	
	<p>En materia de régimen local la legislación básica estatal contiene también algunos preceptos en materia de toponimia que son de obligado cumplimiento en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi. <b>La Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local</b>, en su artículo 14, establece que los cambios de <b>denominación de los Municipios solo tendrán carácter oficial cuando</b>, tras haber sido anotados en un registro creado por la Administración del Estado para la inscripción de todas las entidades a que se refiere la presente Ley (registro regulado por <b>el Real Decreto 382/1986</b>, de 10 de febrero, por el que se crea, organiza y regula el Funcionamiento del <b>Registro de Entidades Locales</b>), <b>se publiquen en el Boletín Oficial del Estado</b>. Tienen acceso al Registro las denominaciones (junto con otros datos mencionados en el propio Real Decreto) de los municipios, provincias, entidades de ámbito territorial inferior al municipio, mancomunidades de municipios, comarcas, áreas metropolitanas y otras agrupaciones de municipios distintas de la provincia. La denominación de los Municipios podrá ser, a todos los efectos, en castellano, en cualquier otra lengua española oficial en la respectiva Comunidad Autónoma, o en ambas.</p>	

	<p>El artículo 11 del <b>Real Decreto Legislativo 781/1986</b>, de 18 de abril, <b>por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local</b>, señala que <b>la alteración del nombre y capitalidad de los Municipios</b> podrá llevarse a efecto por el Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma, previo acuerdo del Ayuntamiento e informe de la Diputación Provincial respectiva. El acuerdo corporativo deberá ser adoptado con la mayoría prevista en el artículo 47.2.d), <b>de la Ley 7/1985</b>, de 2 de abril. De la resolución que adopte el Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma deberá darse traslado a la Administración del Estado a los efectos previstos en el artículo 14.1 de la citada Ley. Asimismo, el artículo 25.2 del citado Real Decreto Legislativo dispone que sólo mediante Ley aprobada por las Cortes Generales puede</p> <p>modificarse la denominación y capitalidad de las provincias. Cualquier alteración de sus límites requerirá Ley Orgánica.</p> <p>Por lo demás, no hay que olvidar, tal como reconoce el propio artículo 39 de <b>la Ley 7/1985</b>, que los órganos forales de Araba/Álava, Gipuzkoa y Bizkaia conservan su régimen peculiar en el marco del Estatuto de Autonomía de la Comunidad Autónoma del País Vasco. No obstante, las disposiciones de la citada Ley les serán de aplicación con carácter supletorio.</p> <p>Además, <b>la Sentencia del Tribunal Constitucional 76/1984</b>, de 29 de junio, vino a señalar que no es necesaria la titularidad de una competencia específica para que un ente incardinado en alguna Administración pública, estatal o comunitaria, pueda realizar una actividad cartográfica, no entrando en juego, por consiguiente, la cláusula residual del art. 149.3 de la C. E. Así, del análisis de las normas</p>	
--	---	--

	<p>infraconstitucionales no se infiere la exclusividad estatal del monopolio de la actividad cartográfica, sino la existencia de ciertas competencias de organismos directamente incardinados en la Administración del Estado para controlar, autorizar y unificar en determinados supuestos algunos aspectos también determinados de la actividad cartográfica en función de su repercusión sobre la defensa nacional o en conexión con importantes responsabilidades en el orden internacional, también de exclusiva competencia estatal.</p> <p>En este sentido se promulgaron <u>la Ley 14/2010</u>, de 5 de julio, <u>sobre las infraestructuras y los servicios de información geográfica en España</u> y <u>la Ley 7/1986</u>, de 24 de enero, <u>de Ordenación de la Cartografía</u> que regula el marco en el que se desarrolla la actividad cartográfica oficial en España. En desarrollo de esta última Ley se dictó <u>el Real Decreto 1545/2007</u>, de 23 de noviembre, <u>por el que se regula el Sistema Cartográfico Nacional</u>, cuyo artículo 24 dispone <u>las competencias de la Dirección General del Instituto Geográfico Nacional</u>. (ikus IGNren atala dokumentu honetan bertan)</p> <p>Por otra parte, determinados organismos del Estado tienen capacidad para establecer la denominación oficial de <b>las entidades geográficas de interés general</b>, cuya titularidad les corresponde, como por ejemplo, AENA (Aeropuertos Españoles y Navegación Aérea), Puertos del Estado, Parques Nacionales, ADIF (Administrador de Infraestructuras Ferroviarias).</p>	
--	---	--

	<p><b>Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE):</b></p> <p>El <b>Decreto 271/1983</b>, de 12 de diciembre, <b>por el que se determina el procedimiento para el cambio de nombre de los Municipios</b>, Decreto que probablemente vino a colmar las lagunas normativas existentes en la materia en dicho momento, pero que en la actualidad ha quedado superado puesto que los Territorios Históricos han dictado sus propias normativas en la materia (Apirilaren 7ko <b>2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak</b>, abenduaren 12ko <b>271/1983 Dekretua</b> indargabetu zuen.)</p> <p><b>CONCLUSIÓN</b></p> <p>En el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco <b>la competencia en materia de toponimia corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco</b>, a salvo de las competencias que corresponden al Instituto Geográfico Nacional y sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, y en el Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, para las denominaciones de los municipios y provincias, competencia que ejerció mediante la <b>Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera</b>, cuyo artículo 10.1 dispone que <b>la nomenclatura oficial de los territorios, municipios, entidades de población, accidentes geográficos, vías urbanas y, en general, los topónimos de la Comunidad Autónoma Vasca, será establecida por el Gobierno, los Órganos Forales de los Territorios Históricos o las Corporaciones Locales en el ámbito de sus respectivas competencias.</b></p>	
--	--	--



	<p><b>Azken legea (EAE):</b></p> <p>La <u>Ley 2/2016</u>, 7 de abril, <b>de Instituciones Locales de Euskadi</b>, que en su artículo 7.3 al establecer las competencias de las entidades locales y de los municipios respecto al uso del euskera, señala lo siguiente:</p> <p>“3.– Corresponde, asimismo, <u>a los municipios</u> el establecimiento de la nomenclatura oficial y, en general, la regulación del procedimiento y aprobación de los topónimos y lugares geográficos en su ámbito territorial y de competencia, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 10 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización y uso del euskera, y demás legislación vigente al respecto. En la escritura de dichos nombres se respetarán las normas académicas de la lengua que les correspondan, y, en el caso del euskera, las normas lingüísticas vigentes establecidas por la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.”</p>	
<p><b>Eusko Jaurlaritza</b></p>	<p><u>La Ley 10/1982</u>, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del <u>Euskera</u>, cuyo artículo 10.1 dispone que la nomenclatura oficial de los territorios, municipios, entidades de población, accidentes geográficos, vías urbanas y, en general, los topónimos de la Comunidad Autónoma Vasca, será establecida por el Gobierno, los Órganos Forales de los Territorios Históricos o las Corporaciones Locales en el ámbito de sus respectivas competencias, respetando en todo caso la originalidad euskaldun, romance o castellana con la grafía académica propia de cada lengua.</p> <p>En caso de conflicto entre las Corporaciones Locales y el Gobierno Vasco sobre las nomenclaturas oficiales reseñadas en el párrafo anterior, el Gobierno Vasco resolverá, previa consulta a la Real Academia de la Lengua Vasca.</p>	

<p><b>Foru-aldundiak</b></p>		<p><b>BIZKAIA</b></p> <p>La <b>Norma Foral 8/1993</b>, de 7 de julio, <b>de términos municipales de Bizkaia</b>, establece lo siguiente:</p> <p>Artículo 71.- Cambio de denominación. La denominación de un Municipio o de una Entidad Local Menor solo podrá alterarse, a través del procedimiento establecido en esta Norma Foral iniciado por acuerdo plenario o de junta vecinal respectivamente, adoptado en sentido favorable a la alteración, y siempre que respete la originalidad lingüística euskaldun.</p> <p>Artículo 72.- Procedimiento. La modificación del nombre de un Municipio o de una Entidad Local Menor deberá de observar el siguiente procedimiento:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Se iniciará por acuerdo favorable a la alteración propuesta, del pleno municipal o de la junta vecinal correspondiente.</li> <li>Información pública del expediente por plazo no inferior a treinta días hábiles, con anuncios publicados en el Boletín Oficial de BIZKAIA y en uno de los diarios de mayor circulación en la localidad de que se trate como mínimo. Simultáneamente se dará audiencia, en su caso, al Municipio de su demarcación.</li> <li>Informe de la Real Academia de la Lengua Vasca- Euskaltzaindia. Deberá de ser emitido en el plazo máximo de sesenta días hábiles pues de lo contrario se entenderá realizado en sentido favorable.</li> <li>Resolución plenaria municipal, o de junta vecinal en su caso, aprobatoria o denegatoria de la propuesta.</li> <li>Elevación del expediente a la Diputación Foral para su aprobación en caso de una Entidad Local Menor, o su sometimiento a la resolución de las Juntas Generales de BIZKAIA si de un Municipio se tratara. Esta resolución será publicada en el Boletín Oficial de BIZKAIA y notificada a las entidades públicas afectadas con ofrecimiento de los recursos</li> </ol>
------------------------------	--	--

		<p>administrativos procedentes.</p> <p>f) Inscripción en el Registro Foral de las Entidades Locales de BIZKAIA y remisión a los mismos efectos, a la Administración de la Comunidad Autónoma así como a la del Estado.</p> <p><b>ARABA</b></p> <p>En el ámbito del Territorio Histórico de Álava, la <b>Norma Foral 11/1995</b>, de 20 de marzo, <b>de Concejos del Territorio Histórico de Álava</b>, se refiere en el artículo 4 a la nomenclatura y denominación oficial de los <b>Concejos</b> que deberá respetar en todo caso la de origen euskaldun o castellana, con la grafía académica de cada lengua. El procedimiento para el establecimiento, sustitución o alteración de la denominación oficial de los Concejos observará como mínimo los siguientes trámites:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>a) Aprobación inicial por el Concejo.</li> <li>b) Información pública por el plazo de un mes en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.</li> <li>c) Informe de la Diputación Foral.</li> <li>d) Aprobación definitiva por el Concejo.</li> </ol> <p>Los cambios de nomenclatura sólo tendrán carácter oficial cuando, tras haber sido aprobados definitivamente por el Concejo e inscritos en el Registro Foral de Entidades Locales de Álava, sean publicados en el Boletín Oficial del Territorio Histórico.</p> <p>En desarrollo de dicho precepto, el <b>Decreto Foral 98/1995, del Consejo de Diputados</b>, de 17 de octubre, regula el procedimiento que los <b>Concejos del Territorio Histórico</b> han de cumplir para el establecimiento, sustitución o alteración de sus nombres, <b>modificado por el Decreto Foral 49/2011</b>, de 5 de julio.</p>
--	--	---

		<p>Arabako Lurralde Historikoan 1998ko martxoaren 31ko <b>10/1998 Foru Araua</b> ere aipatu behar da. Horrek arautzen du Arabako Foru Administrazioan eta Lurralde Historikoan euskararen erabilera normalizatzea:</p> <p>«23. artikulua:</p> <p>1.- Toponimia.</p> <p>Arabako Foru Aldundiak lurralde honetako <b>Udalek finkaturiko kale, bide, auzo, mendi, ibai eta orohar toki-izenen izendegi ofiziala errespetatuko du</b> eta, bere eskumen eremuaren barruan, haiei dagozkien mendi, ibai eta orohar ondasun guztien toki-izenen izendegi ofiziala finkatuko du, beti ere horien hizkuntza jatorria eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko berezia errespetatuz. Modu honetan, Arabako lurralde historikoko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspena egingo ditu Arabako Foru Aldundiak, eginkizun horren ardura dagokion erakundearen zuzendaritzapean, gainerako erakundeekin koordinaturik eta Euskaltzaindiak ezarritako irizpideen arabera.</p> <p>2.- Bide seinaleak.</p> <p>Arabako Foru Aldundiaren menpean edo bere eskumen esparruan dauden urtegi, presa, etxe, eraikin eta orohor ondasun guztien izen, errotulazio, bide seinale eta iragarpen oro bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira.»</p> <p>La <b>Norma Foral 4/2011</b>, de 21 de febrero, <b>reguladora de las demarcaciones de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava y de su denominación, capitalidad y sus elementos distintivos</b>, regula en los artículos 61 y 62 el <b>cambio de denominación de los municipios</b> en los siguientes términos:</p> <p>Artículo 61. Cambio de denominación.</p> <p>La denominación de un Municipio sólo podrá alterarse, a través del</p>
--	--	--

		<p>procedimiento establecido en esta Norma Foral iniciado por acuerdo plenario, adoptado en sentido favorable a la alteración, y siempre que respete lo dispuesto al efecto en la legislación sobre uso y normalización del euskera.</p> <p>Artículo 62. Procedimiento.</p> <p>La modificación del nombre de un Municipio deberá de observar el siguiente procedimiento:</p> <p>a) Se iniciará por acuerdo favorable a la alteración propuesta, del pleno municipal u órgano supremo representativo correspondiente, adoptado por mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, debiendo estar debidamente documentada la propuesta.</p> <p>b) Información pública del expediente por plazo no inferior a treinta días hábiles, con anuncios publicados en el BOTHA y en uno de los diarios de mayor circulación en la localidad de que se trate como mínimo.</p> <p>c) Informe de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia en los casos en que se trate de adaptar la denominación a la legislación sobre uso y normalización del euskera. En los demás casos, informe de la Sociedad de la Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza.</p> <p>En ambos casos el informe deberá ser emitido en el plazo máximo de sesenta días y se podrá entender realizado en sentido favorable si no se emite en dicho plazo.</p> <p>d) Resolución plenaria municipal, aprobatoria o denegatoria de la propuesta, adoptada por mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación.</p> <p>e) Remisión del expediente, debidamente, documentado, a la Diputación Foral de Álava para emisión de informe en el plazo máximo de sesenta días hábiles, entendiéndose emitido en sentido favorable si transcurre el citado plazo sin haberse emitido. El expediente que se</p>
--	--	---

		<p>remita ha de contener, como mínimo, los siguientes documentos:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Certificación del acuerdo o acuerdos de la entidad local interesada.</li> <li>2. Informe de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia o de la Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza.</li> <li>3. Los anuncios publicados en el BOTHA y en los diarios de mayor circulación.</li> <li>4. Las alegaciones presentadas en el trámite de información pública.</li> </ol> <p>f) Elevación del expediente a las Juntas Generales de Álava para su aprobación. Esta resolución será publicada en el BOTHA y notificada a las entidades públicas afectadas.</p> <p>g) Inscripción en el Registro Foral de Entidades Locales de Álava y remisión a los mismos efectos, a la Administración de la Comunidad Autónoma así como a la del Estado.</p> <p><b>GIPUZKOA</b></p> <p>La <b>Norma Foral 2/2003</b>, de 17 de marzo, <b>reguladora de las Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa</b>, contiene también una regulación sobre el nombre y cambio de denominación de los municipios en los artículos 34, 35 y 36, a saber:</p> <p>Artículo 34.– El nombre.</p> <p>El nombre oficial de los municipios de Gipuzkoa es el reconocido como tal a la entrada en vigor de esta Norma Foral, y en lo sucesivo se contendrá en la relación de los mismos que sea aprobada y publicada periódicamente por la Diputación Foral.</p> <p>El nombre de las Entidades Locales menores que se constituyan será el acogido en el expediente de creación de las mismas.</p> <p>Artículo 35.– Cambio de denominación.</p> <p>La denominación de un municipio o de una entidad local menor sólo podrá alterarse a través del procedimiento establecido en esta Norma Foral, respetando, en todo caso, lo dispuesto al efecto en la legislación</p>
--	--	--

		<p>sobre uso y normalización del euskera.</p> <p>Artículo 36.– Procedimiento.</p> <p>La modificación del nombre de un municipio o de una entidad local menor deberá observar el siguiente procedimiento:</p> <p>a) Se iniciará por acuerdo del pleno municipal adoptado con el voto favorable de las dos terceras partes del número de hecho y, en todo caso, de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación, o de la Junta Vecinal correspondiente.</p> <p>b) Información pública del expediente por plazo no inferior a treinta días hábiles, con anuncios publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los diarios de mayor circulación en la localidad de que se trate como mínimo. En el caso de Entidades Locales menores, simultáneamente se dará audiencia al municipio de su demarcación.</p> <p>c) Informe de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia. Deberá ser emitido en el plazo máximo de sesenta días hábiles; se podrá entender realizado en sentido favorable si no se emite en dicho plazo.</p> <p>d) Resolución plenaria municipal adoptada con la mayoría señalada en el apartado a), o de Junta Vecinal en su caso, aprobatoria o denegatoria de la propuesta.</p> <p>e) Elevación del expediente a la Diputación Foral para su aprobación. Esta resolución será publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y notificada a las entidades públicas afectadas.</p> <p>f) Inscripción en el Registro Foral de Entidades Locales de Gipuzkoa y remisión a la Administración de la Comunidad Autónoma así como a la del Estado.</p>
--	--	--





	<p>Ley se dictó <b>el Real Decreto 1545/2007</b>, de 23 de noviembre, <b>por el que se regula el Sistema Cartográfico Nacional</b>, cuyo artículo 24 dispone que <b>la Dirección General del Instituto Geográfico Nacional</b> tiene las siguientes competencias:</p> <p>1. Corresponde a la Dirección General del Instituto Geográfico Nacional la aprobación del <b>Nomenclátor Geográfico Básico de España</b>, en el que se registrarán:</p> <p>a) <b>Las denominaciones oficiales de las comunidades autónomas, las provincias, las islas, los municipios y las entidades locales de población</b>, así como sus variaciones acordadas por las Administraciones públicas competentes. No incorporará modificaciones que se refieran al nombre de las Entidades Locales sin que previamente aquéllas hayan quedado <b>inscritas en el Registro de Entidades Locales</b>.</p> <p>b) Los topónimos correspondientes a la <b>orografía, hidrografía, vías de comunicación, comarcas naturales y otras formaciones, con la referencia geográfica que permita su localización en la cartografía oficial, cuando hayan sido aprobados por la Administración pública competente y por el Consejo Superior Geográfico</b>.</p> <p>2. <b>El Registro Central de Cartografía</b> formará el <b>Nomenclátor Geográfico Básico de España</b> a partir de las denominaciones de las que exista constancia en los archivos de la Dirección General del Instituto Geográfico Nacional y del Instituto Hidrográfico de la Marina, estableciendo la necesaria coordinación con el Instituto Nacional de Estadística, con la Dirección General del Catastro y con el Registro de Entidades Locales.</p>	
--	---	--

	<p>3. Corresponde, además, a la Dirección General del Instituto Geográfico Nacional:</p> <p>a) <b>La determinación de la toponimia que afecte a más de una Comunidad Autónoma</b>, previo informe de la Comisión Especializada de Nombres Geográficos.</p> <p>b) La normalización y difusión de la toponimia oficial en coordinación con los agentes competentes.</p> <p>c) La formación de las bases de datos de la toponimia correspondiente al <b>Mapa Topográfico Nacional</b>, junto con sus criterios de normalización.</p>	
<p><b>Toponimia Batzordea</b></p>	<p>Azaroaren 24ko 10/1982 Legea garatzeko, eman zen <u>176/2007 Dekretua</u>, urriaren 16koa, <u>Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa</u>. Horren bidez sortu zen Toponimiako Batzorde-atal Berezia (14. artikulua):</p> <p>«Euskararen Aholku Batzordearen barruan <b>Toponimiako Batzorde-atal Berezia</b> egongo da, kontuan hartzekoa baita, batetik, toponimia normalizatzeko lanen izaera eta berezitasuna eta, bestetik, toponimoak ofizial egiteko administrazio askok parte hartzen dutela. Batzorde-atal hori iraunkorra izango da eta Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoak finkatu, aldatu eta berreskuratzeko aholkuak eta proposamenak egingo ditu.</p> <p>Ondoren datozen artikuluek eratzten dute batzorde honen araubide juridikoa.»</p> <p>Horren funtzioak dira honako hauek (176/2007 Dekretuaren 17.c artikulua):</p> <p>«a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aholku ematea Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoak bildu, berreskuratu, zerrendatu eta gordetzeko beharrei eta lehentasunei buruz.</p>	

	<p>b) Dena delako Administrazio eskudun batek eskatzen dionean, izen ofizialen normalizazioari buruzko aholkuak ematea.</p> <p>c) Mapetan, liburuetan, errotuluetan eta, oro har, hedabideetan, toponimoak erabiltzeko eta idazteko irizpideak eta arauak proposatzea.</p> <p>d) Eusko Jaurlaritzak toponimia arautzeko egiten dituen xedapen orokorreari buruzko txostena egitea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumeneren esparruan, toponimoen izen ofizialak aldatzeko edo egokitzeko eskatzen dituzten irizpenak ematea.</p> <p>e) Batzorde-atalaren ekintzen urteko oroitidazkia egitea eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde-atal Iraunkorrari aurkeztea, Euskararen Aholku Batzordearen urteko oroitidazkian sartzeko.</p> <p>f) Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak toponimiaren arloari buruz eskatzen dizkion oinarritzko azterketak egitea.»</p>	
<p><b>Euskaltzaindia</b></p>	<p><b><u>La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera</u></b>, cuyo artículo 10.1 dispone que la nomenclatura oficial de los territorios, municipios, entidades de población, accidentes geográficos, vías urbanas y, en general, <b>los topónimos de la Comunidad Autónoma Vasca, será establecida por el Gobierno, los Órganos Forales de los Territorios Históricos o las Corporaciones Locales en el ámbito de sus respectivas competencias</b>, respetando en todo caso la originalidad euskaldun, romance o castellana con la grafía académica propia de cada lengua.</p>	

	<p>En caso de conflicto entre las Corporaciones Locales y el Gobierno Vasco sobre las nomenclaturas oficiales reseñadas en el párrafo anterior, el Gobierno Vasco resolverá, previa consulta a la <b>Real Academia de la Lengua Vasca</b>.</p>	
--	--	--



**II. ERANSKINA: Toponimia Batzorde-atal Berezia: 176/2007  
DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari  
buruzkoa: art. 14, 15, 16 eta 17.**

**14. artikulua.**– Toponimiako Batzorde-atal Berezia. Euskararen Aholku Batzordearen barruan Toponimiako Batzorde-atal Berezia egongo da, kontuan hartzekoa baita, batetik, toponimia normalizatzeko lanen izaera eta berezitasuna eta, bestetik, toponimoak ofizial egiteko administrazio askok parte hartzen dutela. Batzorde-atal hori iraunkorra izango da eta Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoak finkatu, aldatu eta berreskuratzeko aholkuak eta proposamenak egingo ditu.

Ondoren datozen artikuluek eratzen dute batzorde honen araubide juridikoa.

**15. artikulua.**– Toponimiako Batzorde-atal Bereziaren Osaera.

1.– Honako hauek osatuko dute Toponimiako Batzorde-atal Berezia:

a) Lehendakaria: Hizkuntza Politikarako sailburuordea.

b) Idazkaria: Euskara Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren idazkaria.

c) Kideak:

– Eusko Jaurlaritzan kartografiaren gaiaren gaineko eskumena duen sailak proposatutako ordezkari bat.

– Eusko Jaurlaritzan toki-administrazioaren araubidearen gaiaren gaineko eskumena duen sailak proposatutako ordezkari bat.

– Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako foru-aldundietako ordezkari bana.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen elkarteak (EUDELeK) proposatutako eta izendatutako ordezkari bat.

– Instituto Geográfico Nacional izeneko erakundeak proposatutako ordezkari bat.

– Euskaltzaindiak proposatu eta izendatutako kide bat.

– Gehienez ere sei kide, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskararen eta toponimiaren arloan ospe aitortua duten pertsonen artean izendatutakoak.

d) Aztertzeak diren toponimoen arabera, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak beste aditu batzuk ere izenda ditzake, arlo horretako batzorde-atal bereziko kideei aholku emateko. Izendapenak dena delako lan hori amaitu artean iraungo du.

2.– Toponimiako Batzorde-ataleko kideak Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ebazpen baten bidez izendatuko dira eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko kideekin batera utziko dute kargua, haien kargualdia bukatzean. Toponimiako Batzorde-ataleko kideak berriz hautatuak izan daitezke.

**16. artikulua.**– Toponimiako Batzorde-atal Berezian hutsik geratzen diren karguak.

Toponimiako Batzorde-atal bereziko kideren baten kargua hutsik geratuz gero, jakinarazi egingo zaio kidea proposatu edo izendatu zuen erakundeari edo organoari, hilabeteko epean beste kide bat proposatu edo hauta dezan; Hizkuntza Politikarako

sailburuordeak izendatuko du kide hori, ebazpen bidez, ordezkaturako kidearen kargualdia amaitzeko geratzen zen denborarako.

**17. artikulua.**– Toponimiako Batzorde-atal Bereziaren eginkizunak.

Toponimiako Batzorde-atal Bereziak honako egiteko hauek izango ditu:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aholku ematea Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoak bildu, berreskuratu, zerrendatu eta gordetzeko beharrei eta lehentasunei buruz.
- b) Dena delako Administrazio eskudun batek eskatzen dionean, izen ofizialen ormalizazioari buruzko aholkuak ematea.
- c) Mapetan, liburuetan, errotuluetan eta, oro har, hedabideetan, toponimoak erabiltzeko eta idazteko irizpideak eta arauak proposatzea.
- d) Eusko Jaurlaritzak toponimia arautzeko egiten dituen xedapen orokorrei buruzko txostena egitea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, toponimoen izen ofizialak aldatzeko edo egokitzeko eskatzen dituzten irizpenak ematea.
- e) Batzorde-atalaren ekintzen urteko oroitidazkia egitea eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzordeatal Iraunkorrari aurkeztea, Euskararen Aholku Batzordearen urteko oroitidazkian sartzeko.
- f) Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak toponimiaren arloari buruz eskatzen dizkion oinarritzko azterketak egitea.



### III. **ERANSKINA: Toponimia Batzordearen azpilantaldeak landutako IRIZPIDE SOZIOLINGUISTIKOAK.**

Leku-izenak lehenesteko orduan irizpide soziolinguistikoak kontuan hartu behar dira, irizpide linguistikoez haratagoko faktoreak ere badirelako toponimoen bilakaeran. Gizartearen erabilera aintzat hartu behar da eta, horrekin batera, idatzizko eta ahozko tradizioak, ahoskera eta abarrak.

#### 1. LEKU-IZEN MOTAK

Euskarri kartografikoetan, dokumentazio historikoetan, herritarren ahotan eta bestelako testuinguruetan mota askotako leku-izenak topatuko ditugu. Irizpide soziolinguistikoak hobeto ezarri ahal izateko honako sailkapena egin dugu:

##### *Leku-izen sinpleak*

Hitz bakarrez (gaztelaniazko adibideetan artikulua kontuan hartu gabe) osatutako izen geografikoak. Ezin itzuliko dira, nahiz eta hiztegi arruntean topatu.

- Zaraia (mendia, Aretxabaleta)
- Montellano (tontorra, Zalla)
- El Calero (karobia, Galdames)
- Aramotz (auzoa, Dima)

##### *Leku-izen konposatu itzulezinak*

Hitz bat baino gehiagoz (gaztelaniazkoetan, artikulua kontuan hartu gabe) osatutako izen geografikoak, eta unitate bakarra eta banaezina osatzen dutenak. Horietako bat leku-izen erreferentzial bat izan ohi da: euskarazkoetan, gehienetan hasieran; eta gaztelaniazkoetan, amaieran.

- Altzako harria (lurmuturra, Getaria)
- Umandiko haitza (mendia, Araia)
- Valle de la Cruz (sakona, Amurrio)
- Raso de Marquillano (aurkintza, Kanpezu)
- Oindoko gaina (gailurra, Andoain)

Askotan izen generikoa ez dator bat erreferentzia egiten dion entitate geografikoarekin.

##### *Leku-izen konposatu itzulgarriak*

Hitz bat baino gehiagoz (gaztelaniazkoetan, artikulua kontuan hartu gabe) osatutako izen geografikoak, baina unitate bakarra eta banaezina osatzen ez dutenak. Apelatiboa hizkuntza arruntekoa izan ohi da beti eta bat dator erreferentzia egiten dion entitate geografikoarekin.

- Aramako industrialdea / Polígono industrial de Arama
- Aizkorriko aterpea / Refugio de Aizkorri
- Otsaurteko ermita / Ermita de Otsaurte
- Begoñako eliza / Iglesia de Begoña
- Oteoko errota / Molino de Oteo
- Antoñanako bidea / Camino de Antoñana

#### *Leku-izen bikoitzak*

Bi izen lehenetsi (edo gehiago) dituzten lekuak eta maila berekoak direnak. Ez dago arrazoi objetiborik bat lehenesteko. Alonimoak dira.

- Montenegro / Peñalba (mendia, Artziniega)
- Larrunarri / Txindoki (mendia, Enirio-Aralar)
- Ego / Okinzuri (ibaia, Ermua)
- Ganekogorta / Belaute (mendia, Arrigorriaga)
- Espiritusantu / Santi Spiritus (ermita, Zegama)

Multzo honen barruan ere sartzen dira euskaraz eta gaztelaniaz forma desberdina dutenak. Horrelako kasuetan, Euskaltzainaren irizpideen arabera, lehenengo euskarazko aldaera jartzen da eta ondoren, barra etzanaz banatuta, gaztelaniazko aldaera.

- Butroe / Butrón (ibaia, Bizkaia)
- Nerbioi / Nervión (ibaia, Bizkaia)

#### *Izen arruntak*

Hizkuntza arrunteko hitzez osatutako leku-izenak eta erreferentzia egiten dion entitate geografikoarekin bat etorri ohi direnak.

- Ur-biltegia / Depósito de agua
- Hilerría / Cementerio
- Udaletxea / Ayuntamiento
- Pilotalekua / Frontón
- Osasun-etxea / Centro de salud
- Eskola / Escuela

#### *Izen bereziak*

Erakundeek eta norbanakoek entitate geografiko jakinei jartzen dizkieten izen bereziak: errepedeen kodeak, ikastetxeen izenak, eraikin publikoen izenak...

- Oñarte kultur-etxea (etxea, Arama)
- GI-2631 (errepidea, Elgeta)
- IES Federico Baraibar BHI (ikastetxea, Gasteiz)
- Gure Ametza (etxea, Lasarte-Oria)



## 2. ARAZO ZEHATZAK

### 2.1. Leku-izen konposatu itzulezinen idazketa

Leku-izen konposatuak arautzeko Euskaltzaindiak 2000. urtean ezarritako jarraibideek<sup>2</sup> (gaur egun oraindik ere erabiltzen direnak), hainbat arazo sortzen dituzte, eta horiek azaleratu nahi ditugu, kontuan har daitezten. “NONGO + izena” egitura duten leku-izen konposatuez arituko gara, batez ere.

Jarraibide horietan, honako bi irizpide ematen dira:

1. “Generikoak [hitz konposatuen bigarren osagaiak, alegia], oro har, euskara batuan eman behar direla uste dugu, baina esan bezala tokian tokiko aldaerak ere onartu behar dira, aski sustraiturik eta erabiliak badira” (Gorrotxategi&Salaberri, 2000: 285).
2. “Izen espezifikoak letra larriz hasi behar da eta letra xehez jarraitu, eta generikoa letra xehez hasi eta letra xehez amaitu behar da” (Gorrotxategi&Salaberri, 2000: 311).

Hiru motako arazoak identifikatu ditugu.

1. Inkoherentziak gertatzen dira leku-izenen bigarren osagaiaren eta lehen osagaiaren idazketen artean, askotan udalerrri beraren barruan.

- Arnoateko **gaina** (Mutriku, tontorra)  
Letegaña (Mutriku, tontorra)
- Zaldumendiko **gaztainadia** (Bergara, basoa)  
**Gaztañandieta** (Bergara, basoa)
- Gorbeiako **gurutzea** (Zeanuri, tontorra)  
**Kurutzegana** (Zeanuri, tontorra)

2. Askotan bigarren osagaia (generikoa ohi dena) ez dator bat erreferentzia egiten dion entitate geografikoarekin. Hori ohikoa izaten da, baina euskarazko kasuetan, hizkuntza arrunteko osagai modura aurkezten denez (letra xehez eta euskara batuan), ezin jakin dezakegu zer den:

- Getariako *Altzako harria* leku-izenak lurmutur bati egiten dio erreferentzia, ez harri bati.
- Oiartzungo *Lasarteko zabala* leku-izenak bizkar bati egiten dio erreferentzia, eta ez zabalgunek bati.

<sup>2</sup> Gorrotxategi, M. eta Salaberri, P., 2000, “Toponimia txikia arautzeko irizpideak”, *Euskera* XLV: (273-314)

- Lantarongo *La Cruz del Ramo* leku-izenak bidegurutze bati egiten dio erreferentzia, eta ez gurutze bati, gaur egun.
- Zegamako *Aizkorriko gurutzeak* leku-izenak mendi-gainari egiten dio erreferentzia, eta ez antzina zegoen gurutze erromanikoari.

3. Azkenik, leku-izen konposatuen bigarren osagaia hizkuntza arruntzat jotzen badugu, itzuli egin beharko genuke, EAEn bi hizkuntza ofizial ditugula kontuan hartuz, eta goiko adibideen kasuan ez dirudi oso jokaera zuzena litzatekeenik. Izan ere, horrela eman beharko genituzke:

- *Altzako harria* / \**La Peña de Altxa* (Getaria, lurmuturra)
- *Lasarteko zabala* / \**El Llano de Lasarte* (Oiartzun, bizkarra)
- \**Ramoko gurutzea* / *La Cruz del Ramo* (Lantarón, bidegurutzea)
- *Aizkorriko gurutzea* / \**La Cruz de Aizkorri* (Zegama, mendi tontorra)

Eta bistakoa da, okerrekoak direla (\*) batez hasten diren leku-izenak.

### Konponbidea

Goian azaldutako arazoak konpontzeko bi urrats eman litezke:

1. Bigarren osagaia toponimoaren osagaitzat jotzea eta, horrenbestez, arautzeko garaian lehen osagaiari ematen zaion trataera berbera ematea. Lehen puntuko adibideetara itzuliz, horrela arautuko litzateke bigarren osagaia: “gaña”, “gaztañadia”, “kurutzea”. Beraz, unitate banaezina lirateke bi osagaiak.

2. Bigarren osagaia letra larriz idaztea, eta ez letra xehez. Era horretan, leku-izen osoa ondo identifikatuko litzateke eta, gainera, entitate geografikoa eransten zaionean bata eta bestea bereiziko lirateke.

Lehenetsia: **Altzako Arria** (Getaria)

Entitate geografikoa: lurmuturra / cabo

Bertsioa eusk.: Altzako Arria lurmuturra

Bertsioa gazt.: Cabo de Altzako Arria

Lehenetsia: **Oindoko Gaña** (Andoain)

Entitate geografikoa: gailurra / cima

Bertsioa eusk.: Oindoko Gaña gailurra

Bertsioa gazt.: Cima de Oindoko Gaña

Lehenetsia: **Peñas de Ranero** (Karrantza)

Entitate geografikoa: mendigunea / macizo

Bertsioa eusk.: Peñas de Ranero mendigunea

Bertsioa gazt.: Macizo Peñas de Ranero

Lehenetsia: **Altos de Buradón** (Labastida)  
 Entitate geografikoa: mendia / monte  
 Bertsioa eusk.: Altos de Buradón mendia  
 Bertsioa gazt: Monte Altos de Buradón

Esan beharra dago inguruko izendegietan<sup>1</sup> bigarren osagaia letra larriz idaztea ohikoa dela. Adibideak: *Abeledo de Abaixo, Cabo de Vila, A Fonte do Mouro, O Canteiro...* Galizian; *Puig de l'Aiga, Turó de la Roqueta, les Ameriques, la Cocullada, Can Roca...* Katalunian; *Cabezo de la Mula, Cerrillo de la Majada, El Raso...* Espainian; *Les Inchères; Le Gué des Thibets; l'Ormeau Cornuau, Devant Chaure...* Frantzia.

Euskaltzaindiaren arabera, aipatutako konponbidea ez dator bat orain arteko praktikarekin. Nafarroako eta Iparraldeko toponimian letra xehez eman dira. EAEn ere bai: kasurako, *Gazteluko atxa*.

Bigarren osagaia letra xehez idaztea arazo iturri da EAeko Izendegi Geografikoan, bigarren osagaiak ez diolako erantzuten sarritan gaur egun toponimoak erreferentzia egiten dion entitate geografikoari. Gainera, INSPIREren ereduari jarraituz “izen luzeak” edo “bertsioak” eratu behar izaten dira entitate geografikoa abiapuntutzat hartuz. Horrela eraturako izenetan, bigarren osagaia eta entitate geografikoa hizkuntza arruntean eta letra xehez idazten badira, toponimoa identifikatzea gaitza da.

HPSk eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko ordezkariekin abenduaren 12an izandako bileran erabaki hau hartu zen: irizpide linguistikoa izanda, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak aztertuko duela, kasuistika guztia kontuan izanda.

Euskaltzaindiak aztertu du arazoa eta txostena egin du, Toponimia Batzordearen 2020.02.06ko bileran aurkeztua. Ikus erantsita. Dokumentu irekia izango da, eguneroko lanean agertuko diren kasu zehatzak aztertuta osatzen joango dena.

## 2.2. Adbokazioak

Euskaltzaindiaren 125. arauaren arabera (“San, santu, done eta besteren erabilera”) santu batzuen izenak “done” formaz arautu behar dira (Juan, Martin, Migel, Pedro...), baina horrek talka egiten du herri askotan erabili eta finkatu diren leku-izenekin. Adbokazioen izen arautuak tradiziozko leku-izenaren gainetik kokatu behar al dira?

- San Juan (erab.) / Done Joanes (santua.) (ermita, Zestoa)
- San Martin (erab.) / Done Martie (santua) (auzoa, Alkiza)
- San Migel (erab.) / Done Mikel (santua) (eliza, Aizarnazabal)
- San Pedro (erab.) / Done Petri (santua) (eliza, Bilbao)
- Santa Engrazia (erab.) / Dona Garazi (santua) (ermita, Segura)

HPSk eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko ordezkariekin abenduaren 12an izandako bileran erabaki zen Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak aztertuko duela.

Euskaltzaindiak aztertu du arazoa eta txostena egin du, Toponimia Batzordearen 2020.02.06ko bileran aurkeztua. Ikus erantsita. Dokumentu irekia izango da, eguneroko lanean agertuko diren kasu zehatzak aztertuta osatzen joango dena.

### 2.3. Euskarazko grafia

Gaztelaniazko leku-izenak nagusi diren eskualde eta udalerrietan (Karrantza, Gaubea, Navaridas...) badira euskal jatorria duten (edo ustez izan duten) leku-izenak. Bada, horietan, batzuetan euskarazko grafia erabili ohi da; beste batzuetan, gaztelaniazkoa.

Euskarazko grafia bultzatu behar da eskualde horietan?

- La Bizcarreta → Bizkarreta (Osma, Gaubea)
- Parracha → Parratxa (Astúlez, Gaubea)
- Macuca → Makuka (aurkintza, Añana)
- Caramacheta → Karamatxeta (tontorra, Zanbrana)
- Zorroza → Zorrotza (Villanañe, Gaubea)

Euskal jatorria duten leku-izenak badira, euskarazko grafia arautuan eman behar dira. Zalantza izan badira, zuzena da, gaztelaniazko leku-izenak nagusi diren eskualdeak izanik, gaztelaniazko grafian ematea, euskarazkoak direla ikertu eta ebatzi arte. Beraz, zalantzaren aurrean Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeari galdetu behar zaio.

### 2.4. Gaztelaniazko grafia

Euskarazko leku-izenak nagusi diren eskualde eta udalerrietan (Getaria, Zeberio, Aramaio...) badira erdal jatorria duten (edo ustez izan duten) leku-izenak. Bada, horietan, batzuetan gaztelaniazko grafia erabili ohi da; beste batzuetan, euskarazkoa.

Gaztelaniazko grafia bultzatu behar da?

- Miracampos / Mirakanpos (Lasarte-Oria)
- Montevideo / Montebideo (Urretxu)
- Villarcayo / Billarkaio (Gernika-Lumo)
- Buenavista / Buenabista (Pasaia)
- Antequera / Antekera (Dima)
- Caracasberri / Karakasberri (Getaria)

Euskaltzaindiaren arabera, tradiziozko joera izan da euskal hiztunek leku-izen horiek euskararen sistemara egokitzea. Edozein kasutan, aurreko puntuko irizpidearekiko koherentzia mantentzea komeniko litzateke. Beraz, zalantzaren aurrean Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeari galdetu behar zaio.

### 2.5. Leku-izenen grafia euskara galdu den eskualdeetan

Euskarazko leku-izenen presentzia handia da euskara galdu den eskualdeetan. Gaztelaniazko leku-izenekin nahasian azaltzen dira. Leku-izen horiek jatorriaren arabera grafia izaten dute normalean: euskal jatorria duten (edo ustez duten) izenak euskal grafiarekin; gaztelaniazko jatorria duten (edo ustez duten) izenak gaztelaniazko grafiarekin.

Zein izango da irizpidea leku-izenen grafia hautatzerakoan?

- Motxola (sakona, Alegria-Dulantzi)
- Barrancomedio (sakona, Alegria-Dulantzi)
- El Patxo (tontorra, Alegria-Dulantzi)
- Txarlazo (haitza, Amurrio)
- Basatxi (auzoa, Amurrio)

Zalantza dagoenean, EAeko toponimiari dagokionez, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeari egingo zaio kontsulta.

## 2.6. Etxe-izen garaikideak

Etxeen izenetan, oro har, eremu pribatuetan sartzen garen neurrian, badugu zilegitasunik jabeek edo bizilagunek erabiltzen duten edo aukeratu duten izena normalizatzeko? Etxe-izen garaikideetan zalantza hori areagotu egiten da.

Normalizatu behar dira horrelako izenak?

- GuHau
- Margarita Enea
- Villa Pilar
- Niknainuna
- Gure Ametza
- Egizearberri (Eizagirre normalizatutako etxalde zahar bati erreferentzia egiten dion etxe berria)

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea gai hau aztertzen ari da dagoeneko. Argitu behar da zer ulertzen dugun 'garaikide' adjektiboarekin. Garbi dago alde batetik gaur artekoa dela, baina noiztik hona? XX. mendearen erditik hona-edo? Ondare pribatua izanik, etxe garaikideen izenak normalizatzeko Administrazioak duen zilegitasuna dela-eta, aintzat hartu behar dugu bestelako jabetza pribatuei dagozkien izenak ere (lur-sailak) normalizatzen direla, zalantzarik sortu gabe. Hala ere, agerikoa da etxeen gaia delikatuagoa dela.

Beraz, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen azterketaren emaitzak izan arte itxoin beharko da.

Euskaltzaindiak aztertu du arazoa eta txostena egin du, Toponimia Batzordearen 2020.02.06ko bileran aurkeztua. Ikus erantsita. Dokumentu irekia izango da, eguneroko lanean agertuko diren kasu zehatzak aztertuta osatzen joango dena.

## 2.7. Ahozko aldaera eta aldaera dokumentatua, urrun

Etxeen izenetan askotan gertatzen da ahozko aldaera edota XX. mendeko aldaera idatzia oso urrun daudela XX. mendearen aurreko aldaera dokumentatuetatik, eta etxe jabeek ez duela nahi izaten izen zaharra berrezartzerik.

Erresistentzia hori areagotu egiten da gaur egungo aldaera edo XX. mendeko aldaera idatzia ez denean hizkuntzaren bilakaera normal baten ondorio. Esan liteke askotan herri etimologiaren eraginez gertatu ohi direla.

Antzinako formak berrezarri behar dira?

- Gorrochategui (lehen) → Gosategi (orain) (auzoa, Zegama)
- Astaburuaga (lehen) → Astaola (orain) (etxea, Legazpi)
- Asodacar (lehen) → Atsobakar (orain) (etxea eta auzoa, Lasarte-Oria)
- Choanchotegui (lehen) → Txoistegi (orain) (etxea, Zerain)
- Ategutia (lehen) → Atagoiti (orain) (etxea, Gabiria)

Aldaera bulgarrik saihestu beharko lirateke. Tokian tokiko hitzunek beraiek ere sarritan ondo bereizten dituzte ahozko aldaerak eta aldaera jasoak (idatzizko erregistroak, eskrituretan jasota egon ohi direnak).

Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberrirentzat irizpide bat hau izan liteke: “1850eko eta 1850a aurreko aldaerak onetsi eta urte honetatik aurrerakoak ezetsi” (Gorrotxategi&Salaberri, 2000: 292).

Hala ere, kasu hauek banan banan aztertu beharko lirateke. Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari egingo zaio kontsulta.

## 2.8. Alonimoak

Leku bat izen batez baino gehiagoz ezagutu liteke gaur egun. Litekeena da, halaber, historian zehar hainbat izenez ezagutu izana.

Zein irizpide erabiliko da lehenetsia hautatzeko?

- Joarasgibel / Gaintzabal (mendia, Legazpi)
- Trintxerakoa / Kiputxena / Julianena (etxea, Dima)
- Inguntzagoikoa / Iturriko etxea / Kasianona / Goikoetxe (etxea, Dima)
- Areantzaaundi / Joxejoakiñena (etxea, Aretxabaleta)
- Igoate / Aizkorriko entrada (lepoa, Zegama)

Euskaltzaindiarentzat alonimo horiek antzeko erabilera badute, oinarrizko irizpidea da izen historikoari eta dokumentatuari lehentasuna ematea. Herriko erabilera ere ezagutu behar da, ordezkapena noiz eta noraino gertatu den jakiteko.

Etheen kasuetan jabeekin hitz egin beharko litzateke eta, edozein kasutan, udalarekin.

<sup>1</sup> Nomenclátor oficial de toponimia major de Catalunya, Nomenclátor de Galicia, Espainiako eta Frantziako IGN institutuak.



## Toponimia Batzordearen azpilantaldeak landutako IRIZPIDE KARTOGRAFIKOAK

Mapetan erabiliko diren gutxieneko entitate geografikoak eta haiekin lotutako eskalak.

eskala GeoEuskadi	entitatea_eus	entitatea_es
11	Mendilerroa	Sierra
	Ibaia	Río
	Urtegia	Embalse
	Natur parkea	Parque natural
	Udalerría / Parzonería	Municipio / Parzonería
12	Mendia [1. mailakoa]	Monte [rango 1]
	Gailurra [1. mailakoa]	Cima [rango 1]
	Udalburua	Cabeza de municipio
13	Barruti administratiboa	Distrito administrativo
	Erreka [1. mailakoa]	Regata [rango 1]
	Mendia [2. mailakoa]	Monte [rango 2]
	Eraikin berezia	Edificio singular
14	Auzoa / Auzunea	Barrio / Barriada
	Gailurra [2. mailakoa]	Cima [rango 2]
	Industrialdea	Polígono industrial
	Aurkintza nagusia	Término importante
15	Etxe mulzoa [izen espezifikoko berbera duten etxeak]	Vecindad [casas con mismo nombre específico]
	Eraikin isolatua	Edificio aislado
	Urbanizazioa / Hiri-auzoa	Urbanización / Barrio urbano
16	Etxea / Baserria	Casa / Caserío
	Eraikin erlijioso	Edificio religioso
	Erreka [2. mailakoa]	Regata [rango 2]
17	Aurkintza	Paraje
	Iturria	Fuente
	Bidea	Camino
	Borda	Borda
18	Lursaila [etxe / baserri ingurua]	Terreno [junto a la casa / caserío]
19	[Izen arruntez osatutako izen geografikoak]	[Nombres geogr. formados por nombres comunes]

Entitate geografikoen taularekin dauden korrespondentziak:

eskala GeoEuskadi	entitatea	kod	entitatea (taula)
11	Mendilerroa	10104	Mendilerroa
	Ibaia	20202	Ibaia
	Urtegia	20301	Urtegia
	Natur parkea	61003	Natur parkea
	Udalerría / Parzonería	80501	Udalerría
12	Mendia [1. mailakoa]	10106	Mendia
	Gailurra [1. mailakoa]	10112	Gailurra
	Udalburua	40101	Udalburua
13	Barruti administratiboa	80600	Udal eremuaz azpiko entitatea
	Erreka [1. mailakoa]	20203	Erreka
	Mendia [2. mailakoa]	10106	Mendia
	Eraikin berezia	60600	Historia eta kulturako leku interesgarriak
14	Auzoa / Auzunea	40102	Auzoa
	Gailurra [2. mailakoa]	10112	Gailurra
	Industrialdea	50100	Industrialdea
	Aurkintza nagusia	00100	Aurkintza nagusia
15	Etxe mulzoa [izen espezifiko berbera duten etxeak]	40105	Etxe multzoa
	Eraikin isolatua	40301 / 40302	Baserria / Etxea
	Urbanizazioa / Hiri- auzoa	40201	Urbanizazioa, hiri auzoa
16	Etxea / Baserria	40301 / 40302	Baserria / Etxea
	Eraikin erlijiosoa	60900	Eraikin erlijiosoa
	Erreka [2. mailakoa]	20203	Erreka
17	Aurkintza	00101	Aurkintza
	Iturria	20212	Iturburua
	Bidea	70400	Bidea
	Borda	40306	Borda
18	Lursaila [etxe / baserri ingurua]	30400	Lur landua
19	[Izen arruntez osatutako izen geografikoak]		



Tipografía proposamena, paperezko mapetan erabiltzeko:

11	22	<b>Mendilerroa</b>	<b>Sierra</b>
		<i>Ibaia</i>	<i>Río</i>
		<b>Urtegia</b>	<b>Embalse</b>
		<b>Natur parkea</b>	<b>Parque natural</b>
		<b>Udalerría / Parz.</b>	<b>Municipio / Parz.</b>
12	20	<b>Mendia [1. mailakoa]</b>	<b>Monte [rango 1]</b>
		<b>Gailurra [1. mailakoa]</b>	<b>Cima [rango 1]</b>
		<b>Udalburua</b>	<b>Cabeza de municipio</b>
13	18	<b>Kontzejua / Biztanleguna / Elizatea / Auzo admin.</b>	<b>Concejo / Ent. de pob. / Anteigl. / Barrio admin.</b>
		<i>Erreka [1. mailakoa]</i>	<i>Regata [rango 1]</i>
		<b>Mendia [2. mailakoa]</b>	<b>Monte [rango 2]</b>
		<b>Eraikin berezia</b>	<b>Edificio singular</b>
14	14	<b>Auzoa / Auzunea</b>	<b>Barrio / Barriada</b>
		<b>Gailurra [2. mailakoa]</b>	<b>Cima [rango 2]</b>
		<b>Industrialdea</b>	<b>Polígono industrial</b>
		<b>Aurkintza nagusia</b>	<b>Término importante</b>
15	14	<b>Etxe mulzua [izen espezifiko berbera duten etxeak]</b>	<b>Vecindad [casas con mismo nombre específico]</b>
		<b>Etxe / baserri isolatua</b>	<b>Casa / caserío aislado</b>
		<b>Urbanizazioa / Hiri-auzoa</b>	<b>Urbanización / Barrio urbano</b>
16	12	<b>Etxea / Baserria / Bestelako eraikinak</b>	<b>Casa / Caserío / Otras edificaciones</b>
		<b>Eraikin erlijioso</b>	<b>Edificio religioso</b>
		<i>Erreka [2. mailakoa]</i>	<i>Regata [rango 2]</i>
17	10	<b>Aurkintza</b>	<b>Término</b>
		<i>Iturburua</i>	<i>Fuente, manantial</i>
		<b>Bidea</b>	<b>Camino</b>
		<b>Borda</b>	<b>Borda</b>
18	9	<b>Lursaila [etxe / baserri ingurua]</b>	<b>Terreno, campo de cultivo [junto a la casa / caserío]</b>
19	8	[Generikoz osatutako izen geografikoak]	[Nombres compuestos formados por genéricos]